

## AMATIÑO

## Azkueri zor zaion ezagutza



Tweet

AMATIÑO 2016/12/14 00:05

Lekeitioko herriak, Euskaltzaindiak, sabindarrek eta euskaltzale orok omenaldia eskaini zioten Resurrección M. Azkueri 1936ko ekainaren 28an. Ekitaldia amaitu ostean, Aitzol, Orixe, Antonio M. Labaien eta Aita Altzo kaputxinoa, bertako kaian motordun txalupa hartu eta, Donostialdera abiatu ziren itsasoz. Segurutik, lau zpabost ordu behar izango zituzten etxeratu orduko baina, antza, Lekeitiotik Donostiara joateko biderik azkarrena zen garai hartan.

Honelako makina bat xehetasun bitxi, bakan eta interesgarri eskaintzen ditu txitean pitean [Jurgi Kintana Goiriena](#) historialariak *AZKUE. Bilbotar ezezaguna* (Erein, 2015) izenburupeko bilduma mardulean. Batek daki zenbat ordu behar izango ote zituen doktore honek, sekula Azkue zenaren bizitzaz egindako bilketarik oparoena osatu ahal izateko... "gaztetako ikasketak, euskara katedrako urteak, militantzia politikoak, euskararen inguruko proiektuak, Europako bidaiak,

## AMATIÑO



Blogaren RSS jarioa

Erantzunen RSS jarioa

## AURKEZPENA

## Amatiño

Luis Aranberri Mendizabal

## CURRICULUM

LA CASA SOLAR DE ARAMBARRI


- Arambarri, Aranberri, Aranberri.

*euskal hezkuntza lortzeko nekeak, konpositore garaiak, Euskaltzaindiko gorabeherak, Gerra Zibileko urteak...* Txapela kentzeko moduko bilketa-lana. Kristoren informazio-kutxa.

Baina datu soilak bildu ez ezik, Jurgi Kintana unean uneko testuingurua azaltzen ahalegindu da gogotik, garaian garaiko jarrerak ulertarazteko abiapuntuak eskaintzen, sasoiari sasoiari ideologia-jokabideak aletzen, indar kontrajarrien eta nondik norakoen zertzeladak argitzen. Beti ere Azkue ardatz nagusitzat hartuz, eta euskara zein Euskal Herria irentsi beharrez zetorren modernitateari zelan edo halan aurre egin gurarik, lekeitiarrak mende erdi luzez landu zuen egitasmoaren ildotik.

Azkue jaio zen (1864), Unamunoren (1864) eta Sabino Aranaren (1865) aldi berean. Zortzi urte zituen Bigarren Gerra Karlista hasi zenean; 24, Bizkaiko Diputazioaren lehen euskara-katedra irabazi zuenean; 30, *Euskeldun Batzokija* Bilbon ireki eta, estreinako, ikurrina eseki zenean; 37, Unamunok euskarari etorkizunik ukatu zionean; 41, euskara-gaztelania-frantsesa hiztegia burutu zuenean; 55, Euskaltzaindia sortu eta euskaltzainburu hautatu zutenean; 60 inguru, *Euskal Morfologia* eta *Euskal Herriaren Yakintza* moldatu zituztenean; 72, Lekeition omenaldia eskaini ziotenean eta Franco demokraziaren aurka altxatu zenean.

Unamuno bera baino bilbotarragoa izan zen Azkue ezezaguna 1951an hil zen, 87 urtez, lanean aritu ostean Euskaltzaindiaren egoitzatik atera eta aurreko ibaira jausi zelarik. Bizitza osoa, lanean. Orain sumatu ere nekez sumatu ditzakegun zailtasun, eragozpen eta ezintasunen kontra. Beti eragile, inoiz bakarrik, sarri egiazko etsaiak zeharkatzen eta, tarteka, balizko lagunak zaletzen. Euskararen egoera arras bestelakoa litzateke egun Azkueren lan eskerga izan ez balitz.



## Datos generales

- Lambarri, Arambarri, Aramberri, Aranberri. Posible significado

- Juanes de Arambarri, 1576-1659

- Juanes Arambarri okondoarraren amodio azkoitiarrak

## AMATIÑO BASERRIA

- Mendizabal. Zenbait datu

- Mendizabal sortetxetik, Amatiño baserrira

- Ciriaco Mendizabal "Amatiño"

- Aurora Mendizabal, Amatiñoako kaletarra

- Amatiño fandangoa

Juanes Arambarri (1576) - Koldo Aranberri (1908)

Luis Aranberri (1800-61), Andikao-errotakoa

Euskara zorretan zaio Azkue handiari. Eta euskaldunok ere zorretan gatzazkio Jurgi Kintanari, haren handitasuna bildu, azaldu, ezagutarazi eta aldarrikatzeagatik. Beti oinarrizko erreferentzia izango den liburua.

Zenbait gaztek antzinakotzat joko ditu, behar bada, kontu hauek. Baina Azkue, Unamuno eta Arana jai zirenerako, nire aitona bietako batek 21 urte zituen. Atzo gaur da.



asier dio:

2016/12/14 08:58

"Zein izan nahiko zenduke nausittan?", ba, "Azkue" erantzungo neuke ;)

Apuntatu dot liburua, Olentzerori eskatzeko.

Eta zuk, ez badozu irakorri, beste hau eskatu zeinkixo Olentzerori: "Urre urdinaren lurrina" (Erein, 2009). Kintanaren aurreko liburua. Neri, behintzat, asko gustau jatan: [http://eibar.org/\[...\]/urre-urdinaren-lurrina-kintana-2009](http://eibar.org/[...]/urre-urdinaren-lurrina-kintana-2009)



Oier Gorosabel Larrañaga dio:

2016/12/18 23:07

Lekittar eta donostiarrak itsasozko harreman estua izan dabe aspalditik, oso kuriosua da: 1719ko setiuan be alkarri laguntzen ibilli ziran [http://eibar.org/\[...\]/descripcion-sumaria-de-la-villa-de-lequeitio-1740](http://eibar.org/[...]/descripcion-sumaria-de-la-villa-de-lequeitio-1740)

## Iruzkina gehitu

Erantzuna formulario hau betez utzi dezakezu. Formatua testu arruntarena da. Web eta e-posta helbideak automatikoki klikagarri agertuko dira.

Izena

Domingo Aramberri, Voluntario de la Libertad

Domingo Aranberri "Bittor Txiki"

Koldo Aranberri

Aramberri. Nuevo León (México)

-- The most ancient family tree of ARAMBARRI, ARAMBERRI, ARANBERRI in the web

- The most ancient family tree of MENDIZABAL in the web

Luis Aranberri Mendizabal

"Amatiño"

### AZKEN ERANTZUNAK

Ez, ez daiteke esan Saizarbitoriak eraten dituen ...

jaime, 2017/01/06 22:30

Lekittar eta donostiarrak itsasozko harreman ...

Oier Gorosabel Larrañaga, 2016/12/18 23:07

## E-posta

## Erantzuna ■

## Captcha

**Galdera:** Zenbat dira lau gehi lau (idatzi zenbakiz) ?

**Erantzuna:**

Eman erantzuna

"Zein izan nahiko zenduke  
nausittan?", ba, ...

asier, 2016/12/14 08:58

"Jesukristok...latina gero ikasi zuen,  
zerura igo ...

Serafin, 2016/11/24 14:45

Tras décadas de "cultura"  
teledirigida (y ...

jaime, 2016/11/20 18:37

Ez al zaizkio ba arantzalelak berriro  
jarri ...

sosola, 2016/11/13 13:26

Ededra lekua eta bikaina azalpena

Serafin, 2016/11/10 11:34

Leku ederra Escuin! Geu be udan  
egon giñan, ...

asier, 2016/11/10 10:15

Eta zein egoeretan dago gure  
hezkuntza-sistema? ...

ganbaratxotik, 2016/11/06 20:59

Ni ez naiz nor López Atxurra jaunak  
esandakoak ...

jaime, 2016/11/06 17:52

